

Bertsoaren mintzoa ♦

Bittor Elizagoien, goiti begira

Joxema Leitzza lehenbizikoz sartu da Nafarroako finalera, eta Manolo Arozena kanpoan gelditu da

Jon Abril / Etxarri-Aranatz


Saio gogorra aurreikus zitekeen, Etxarri-Aranatzen kantatu zutenen izenak ikusita. Bittor Elizagoien, Xabier Silveira eta Xabier Legarretak ez zuten hutsik egin; Manolo Arozena, saio kaskarra egin ondotik, finaletik kanpo gelditu da, eta Joxema Leitzak joan den urtean lortu ez zuena lortu du aurten: finalean ariko da lehenbizikoz.

SAIO arraroa iragan zen igandearen Etxarri-Aranatzko kultur etxean. Bertsolariak gorabeheratsu ibili ziren, eta saioa ere hala iragan zen. Une batzuetan gauza politak aditu ziren, eta bertze batzuetan huts egiteak nagusitu ziren. Finalera sailkatutako laurak ibili ziren erregularren, bai Manolo Arozenak, bai Nerea Bruñok hutsegite gehiago izan baitzituzten.

Zortziko nagusiko ariketan, Xabier Silveirak eta Xabier Legarretak egin zituzten gauzak ongien. Aranoarrak bikain kantatu zuen, eta joan den urtean eskuratutako bigarren postua ez ezik, txapela janzteko faboritoen taldean dagoela inork gutik jar dezake zalantzan. Silveiraren bertsoetan pata-lena errimak izan ziren, txarrrak izan gabe, hobetzekoak bai.

Zortziko ttikian bertsolariak ez zuten beren maila onena azaldu, eta Xabier Silveirak eta Xabier Legarretak egindako bertso bana, edota Bittor Elizagoienek erakutsitako erregularitasuna dira aipagarrienak.

Bakarlanean ere ez zen aipatzeko gauza askorik gertatu. Poto besta galanta izan zen ariketa hori. Joxema Leitzak poto bat egin zuen puntua emanda. Nonbait, hortik aitzinera lasaigo aritu zen arbizuarra, nahiz eta poto hori adituta batek baino gehiagok bere aukerak murrizturik ikusiko zituen. Nerea Bruñok bi puntuekin egin zuen poto, eta agerian utzi zuen gabezia handienak bakarlanean dituela. Saioaren amaieran, hala ere, kontent agertu zen aurten egindako lanarekin, eta finalerdietan kantatzeko aukera



Bittor Elizagoien, Etxarri-Aranatzko saioan.

Etxarri-Aranatzko emaitzak

Izena	Puntuazioa
1. Bittor Elizagoien	559
2. Xabier Silveira	557,5
3. Xabier Legarreta	555
4. Josema Leitzza	522,5
5. Manolo Arozena	514,5
6. Nerea Bruño	452

eduki izanarekin. Manolo Arozenak ere poto egin zuen, azken aurreko puntua emanda. Hor hasi zen lesakarraren gainbehera. Lehenbiziko hiru postuetan sailkatutakoek —Elizagoien, Silveira eta

Legarreta— erregularri jokatuz zuten, seguruenetik jota.

Hamarreko ttikian ere antzeratsu gertatu zen, eta Manolo Arozenak berriz ere poto egin zuen. Beharbada, guztien gainetik Bittor Eliza-

goien aritu zen. Xabier Legarretarekin aritu zen: bizilagunen ordezkari moduan Legarreta txakur handi baten jabearengana joatea egokitu zitzaion.

Bittor Elizagoien:

Zakur za(ha)rra zaunkaka
etxeke atian,
zakurra ta zu ere
gureztat kaltian.
Zakurra nahi baduzu
eduki kation;
aizu utzi gaitzazu
besteok pakian,
eta bizi zintezke
etxola batian (bis).

Kartzelako lanean Silveirak eta Legarretak goitik jo zuten, eta bertso txukunak osatu zituzten. Ordura arte bezala, gainerakoek saioan eskainitakoa eman zuten: Bittor eta Joxema erregular, Nerea gorabeheratsu eta Manolok, hirugarrenez, poto.

Nafarroari buruzko web orri baten sarreraren idazteko bina bertso eskatu zizkien Manu Gomezek bertsolariei.

Finalistak

Bittor Elizagoien
Xabier Silveira
Juan Mari Lopez
Estitxu Arozena
Xabier Legarreta
Iñigo Olaetxea
Estitxu Fernandez
Josema Leitzza

saioak

• Asteartea, 16

TXURDINAGA (BILBO)

BBK sariketa Gabriel Aresti Institutuan, 11:30etan

Bilbo eta Busturia taldeak

• Asteazkena, 17

MARKINA-XEMEIN

BBK sariketa Ikastegi Teknikoan, 11:00etan

Lea-Artibai eta Txorierri taldeak

• Osteguna, 18

BEASAIN

Zinemaren, 22:00etan

Enbeitatarrak, Jose Munduate, Ekaitz Goikoetxea, Xabier Narbarte, Mikel Mendizabal

• Ostirala, 19

IRUN

Jaialdia Amaia antzokian, 12:00etan

Sebastian Lizaso, Jokin Sorozabal, Jon Maia, Iñaki Murua, Aitor Mendiluze, Andoni Egaña

BERASTEGI

Bertso-afaria

Jose Lizaso, Imanol Lazkano

• Larunbata, 20

IGORRE

Jaialdia kiroldegian, 22:00etan

Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Aitor Mendiluze, Iratxe Ibarra

• Igandea, 21

LESAKA

Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala pilotalekuan, 16:30etan

Estitxu Arozena, Iñigo Olaetxea, Juan Mari Lopez, Xabier Silveira, Estitxu Fernandez, Bittor Elizagoien, Xabier Legarreta, Josema Leitzza

ARBONA

12:00etan

Ellande Alfaro, Txato, Ortzi Idoate, Amets Arzallus, Sustrai Kolina, Xumai Murua

Silveirak argazki hau aterazioan Nafarroari, zazpi puntu-ko neurrian:

Xabier Silveira:

...hemen duzute Nafarroako erreinu zahararen berri, nun txorixuak pertsonak diren
ta agintariak txerri (bis).

...herri honetan ia soberan dauka jendeak garuna dugu polizi biguna guztiak maite gaituna (bis)
kirol taldetzat haundi bezala hosrtxe dugu Osasuna eta diotenez Xabier Silveira bertsolarien txapelduna (bis).

Orain bi urte bezala...

ORAIN bi urte bezala, finalak bi alde izanen ditu, mingotsa bat, gozoa bertzea. Mingotsaren aldean, orain bi urte bezala, protagonista bera izanen da: Manolo Arozena. Berriz ere finaletik kanpo gelditu da. Saio kaskarra egin zuen, zinez, igandearen. Hain gaizki inoiz ez da ibili txapelketan, orain bi urte Zizurren egin finalerdian ere pattal ibili bazen ere. Harritzekoa da, hainbertze urteren ondoren, txapelen eskarmentua jaso ondotik, kontzentrazioa hainbertze galtzea, hain urduri paratzea. Bere ikasle izan garenok pena handia

hartu dugu berriz ere. Orain bi urte bezala. Manolok Nafarroako bertsolaritzari ekarri diona inork gutik ekarri dio, eta gogorra egiten da modu horretan kanpoan gelditzen dela ikusteak.

Orain bi urte bezala, Manoloren hutsa gazte batek hartuko du. Orain bi urte bezala, gazte horrentzat lehenbiziko finala izanen da. Joxema Leitzak saio erregularra egin ostean lortu zuen sailkapena. Urduritasuna gaintitzen joan zen saioan sartu ahala. Manolok utzitako mingotsa goxatu digu, orain bi urte bezala.